

FITXA METODOLOGIKOA

UDALPLAN, INFORMAZIO GEOGRAFIKOAREN

SISTEMA ETA LURRALDE-DATUEN BANKUA

(200206)

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Udalplan. Informazio geografikoko sistema eta lurraldekako datuen bankua.

UDALPLAN lurralde antolamendu arloan laguntzeko sortutako Informazio Geografikoaren Sistemako tresna bat da. EAeko udalerrri guztietako plangintzaren inguruan indarrean dagoen informazioa jasotzen du, urtero-urtero; zehatz-mehatz, Egitura Orokorra eta Organikoa, eta Lurzoruaren Kalifikazioa eta Sailkapena. Horrez gain, alfazenbakizko datu-base bat dauka, plangintzan definitutako arlo bakoitzaren betetze-maila zein den erakusten duena udalerrri bakoitzean. Datu-base hori hainbat laburpen-koadroekin osatzen da, eta koadro horietan Arlo Funtzional, Probintzia edo Lurralde Historikoen eta Autonomia Erkidegoaren araberako informazioa biltzen da.

Udalplan elikatzeko informazioa EAELABen (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordea) kudeaketan jasotzen da, baita behin betiko onarpena baino lehen plangintzaren inguruko dokumentuak baloratzetik jasotakoa ere. Izan ere, azken lan hori **Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzari** dagokio. Gainera, informazioa osatu egiten da Aldizkari Ofizial eta urtero-urtero udalei egiten zaizkien arlo guztien garapenaren egoera egiaztatzen duen kontsulten bitartez.

Eragiketaren kodea.

200206 (3/2014 LEGEA, azaroaren 13koa, 2014-2017 Euskal Estatistika Planari buruzkoa)

Erakunde arduraduna.

Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.

Beste erakunda partaide batzuk.

Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Foru aldundiak eta udalak

Gai-arloa.

Estatistika-azpiegitura

Maiztasuna.

Urtekoa

Eragiketa-mota.

Bilduma

Metodologia datuen jatorriari jarraiki.

Administrazio erregistroen bidez jasotako informazio-datuak biltzea, batez ere, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritzaren jardueraren ondorioz; udal eta foru-aldundiekin dituzten komunikazioetan eta aldizkari ofizialetan argitaratutakoak.

Helburuak

Udalerrietako planeamenduaren egoeraren berri bildu eta zabaltzea.

Kartografia eta horren inguruko informazio alfanumeriko bidez, plangintzaren arlo bakoitzeko egoeraren berri ematea, honako ezberdintasunak aintzat hartuta: bizitegi-erabilera duen lurzorua, eta jarduera ekonomikora bideratutako lurzorua, -eraikitze gaitasuna aipatu behar da-, sistema orokorretako lurzorua eta lurzoru ez urbanizagarriak.

Azken finean, EAEko lurzoruari buruz eguneratutako informazioa eskaintzea, gehieneko sistematizazio-mailarekin, honako helburuok bete ditza:

- Lege berriak ezartzen dituen helburuak betearaztea, administrazio publikoak hirigintza arloan duen eskumena aintzat hartuta. Legebiltzarrak onartutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen I Tituluan Xedapen eta Printzipio Orokorrak, eta II Kapituluak hirigintzaren Printzipio Orokorren 4. artikulua “interes publikoaren nagusitasunaren printzipioak” eta 9. artikulua “jendaurreko informazioaren printzipioak”.
- Lurraldearen Antolamendurako Legean jasotzen diren antolatze erak garatzeko oinarri gisa erabiltzeko.
- Profesional, organismo edo erakundeentzat erabilgarri izatea, eta, gerora, lurralde-eta hirigintza-antolamendurekin lotutako esperientzia berrientzat euskarri gisa erabiltzeko.
- Plangintzaren arlo guztien egoeraren berri eman, ezberdindu egin behar delarik bizitegi-erabilera duen lurzorua, jarduera ekonomikoetarako lurzorua, sistema orokorren eta lurzoru urbanizaezinen artean.

Aztertze aldagai nagusiak

Informazioa udalerrira:

- Azalera, herritarrak, indarrean dagoen plangintza.

Arlo bakoitzerako bizitegi-lurzorua:

- Dagoen etxebizitza kopurua, aurreikusitakoak (libreak, BOE eta tasatuak).

Ekonomia jardueretarako lurzorua:

- Okupatua eta hutsik dagoen lurzorua.

Eremua

Populazio-eremua:

Aipatu berri den biztanle kopurua da Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriek batuta osatzen dutena. Horretarako, "Udalerriko fitxak" egiten dira, zeintzuetan lortu den informazio guztia laburtu eta antolatu egiten baiten, urtarilaren leko epe mugarekin urtero-urtero.

Udalerrri, Arlo Funtzional, Probintzia edo Lurralde Historikoen eta Autonomia Erkidegoaren arabera informazioa biltzen da.

Lurralde-eremua:

Aintzat hartzen den geografia-esparrua Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak dira. Laburpen-etaulak taldekatuta daude Udalerrri, Arlo Funtzional, eta Lurralde Historikoen datu totalen arabera.

Denbora-eremua:

t urteari dagozkion Udalplaneko datuak izapidetzerakoan, t urteko urtarrileko epemugarekin, behin betiko eta behin-behineko onarpena eta etete partziala duten plangintzen inguruko dokumentuen informazioa jasotzen dute. Datuak urtean behin argitaratzen dira.

Galde-sortak

Zabalkuntza

- Idatzizko argitalpena. Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza
- Argitalpen elektronikoa-DVD. Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza: Liburu elektronikoa eta Udalplan aplikazioa
- [Internet: Web aplikazioa, laburpen taulak eta shape fitxategiak. Udalplan. Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendaritza](#)
- [Internet: Laburpen taulak. Organo Estatistikoa](#)
- [Internet: Taula estatistikoak. www.eustat.es](#)